

**LACANIAR ALORREKO FORMAZIO
KLINIKOAK EUSKAL HERRIAN**

“JAKINMINA”

2019-2020 IKASTURTEA

19-2020

Koordinakuntza Batzordea

Maria Jesús Zabalo, Josune Aréjula, Mikel Plazaola

Antolaketa Batzordea

Josune Aréjula, Bittori Bravo, Juan del Pozo,
Arkaitz Irazabal, Mikel Plazaola, Teresa Velasco,
M^a Jesús Zabalo, Tereko Zaballa

Informazioa:

M ^a Jesús Zabalo	616965044	zabaloiturrioz@gmail.com
Josune Aréjula	697185601	josune.arejula@gmail.com
Mikel Plazaola	943 431637	mplazaolacloud@me.com

JAKINMINA NIF: G 20712378

Eusko Lege Biltzarrak 2007 ekainaren 12an onartutako 7/2007
legearen baitan AS/G/08720/2000 zenbakiz inskribatutako elkartea

WEB: www.formacionescliciniscampolacanianopaisvasco.org

“JAKINMINA”

LACANIAR ALORREKO FORMAZIO KLINIKOAK EUSKAL HERRIAN (FCCL)

Eskakizunekiko anitzak eta egokituak dauden esparruak dira. “Jakin nahi” batetan kokaturik daudenei zuzendua izatea da, gure ustetan, ardatz nagusia.

FCCL beraz, psikoanalisian interesaturik dagoen edonorentzako irakaskuntza esparru ireki bat da.

Bere baitan egiten den jarduerak psikoanalisian, gure esparruan, Freud eta Lacan hain zuzen ere, urtez urte prestakuntza sendo eta jarrai bat egitea gauzatzen du.

Honez gain Jakin-minak Donostiako San Juan de Dios Ospitale Psikiatrikoekin duen hitzarmenek, klinikarako hain oinarrizkoa den Erien Aurkezpena ahalbidetzen dute, non analistek, kontsulta pribatuetara hain maiz gerturatzen ez diren patologia sakonak aurrez aurre ikus ditzaketen.

Bere xedean egiten diren kasu klinikoan azalpen eta erien aurkezpenetara azaldu ahal izateak, gure egungo ondoezen eta sintomen ulerkuntza, abiapuntu kliniko batetik egiteko aukera zehatza eskaintzen dute. Bere etikara iritsiaz, hau da, ondoren interpretatuko duen psikoanalista batengandik pazientea entzuna izatera, psikoanalisiaren galdekatuak izango dira sintoma eta ondoeza hauek.

2019-2020 ikasturteko aktibitateak, psikoanalisiak gure gizarte eta garaiaren ondoezei ematen dien erantzunetan interesaturik dagoen edonori zuzenduak daude, psikoanalista, psikologo, psikiatra, Osasun mentalean diharduten langileei, mediku, filosofo, irakasle, ikasle, eta orokorki, edozein jakintza arlotik, gaur egungo gizartearen adierazgarri diren aurrerakuntza zientifikoek, subjektuarengan duten eraginaren aurrean, psikoanalisiaren eskaintzan interesaturik dagoen edonorentzako.

Ez da beste jarduerarik, subjektua, bere eskaria adierazterakoan egi sintomatikoa adierazten duena bezala harturik, beregan hunkitzen duen inkontzientearen zergatira zuzenduko duenik.

Lakaniar Alorreko Formazio Klinikoak Euskal Herrian, 1998an hasi zenetik, jarraian, hogeitabatgarren kursoari ekingo dio 2019-2020 ikasturtean, bertan sei modulu proposatzen direlarik:

Jacques Lacan

6. MINTEGIA (1958-1959)

DESIOA ETA BERE INTERPRETAZIOA (1GO ZATIA)

Psikoanalistei zuzendutako irakaskuntzaren lehen denboraldian eta Freuden testuen irakurketa zehatza jarraituz, 1957-59 urteetan “Desioaren grafoa” eraiki eta azaldu zuen Lacanek, bertan bere lehen eredu teorikoa formalizatu.

Aldez aurretik, bere irakaskuntzan funtsezkoa den “hitz esana” eta ondoren progresiboki eraikitzen doan idazketa eskemekin, “subjektu zatitua”, “Beste nagusia”, eta “beste txikia”, kokatzea ahalbidetu zuen banaketa imaginarioaren arabera, baina desioaren grafo honen bidez, subjektuarteko harreman honekin amaitzen du.

Ibilbide hauen lanketarekin aurkituz egingo dugu aurrera, zehazten doazen erregela eta psikoanalitiko funtsezko hastapenak deskribatzeko erabiltzen duen lengoia formalarekin hain zuzen ere. Elementu ezberdinen arteko harremana eta elkarreragina, errepresentatzea ahalbidetuko digun ordenamendu finkatu baten arabera. Hau da, erpin multzoen bikote ordenatu hauetan desioaren grafoa osatzen duten ertz eta arkuekin.

Ibilbide egokienez, prozesuez, zein letratik zein letrara, jarieuz arduratuko da. Bere funtzioak finkatzeaz, logikoa dirudi “Beste nagusiatik” abiatzea. Ondoren bere berariazko ekarpena agerian jarriko du “a” objektua, etabere kokapen nagusia, eta azkenik Subjektua.

Egitura baten osagaiak eta beren arteko harremanak sinbolikoki adierazten dituzten formulak.

Bi urte hauetan, bilakabide jarrai batetan elementu hauen kokapena eta beraien arteko harremana marratzen joango gara. Urte honi lehen hamabi kapituluekin ekingo diogu.

Ikasgai batetik bestera aurrera egingo dugu ikusmolde ezberdinak finkatu eta zuzentzen joanaz, beharrezko izango diren gelditze, azpimarratze, idazte eta aldiro berrirakurtzeekin.

Lacanen hasieran eraiki zuen lehen *fantasmaren logika* da mintegi honen harribidea, *Sendabidearen zuzendaritza eta bere boterearen hastapenak* testuan jada finkatua zuena.

Lanketa jarrai batetan arau edo ongi finkatutako erregelen multzoa egintza analitikoaren baldintzak azalaraztea ahalbidetuko duena.

2. modulua

IRAKURKETA MAHAIA

Mintegiaren saio bakoitzari dagozkion gaien aldez-aurreko irakurketa egite-ari ekingo zaio.

(Lacan, J. (1958). 6. liburua. Desioa eta bere interpretazioa. *El seminario de Jacques Lacan*. Barcelona, Paidós). 1go zatia (I-XII kapituluak)

Egutegia

2019ko urriak 08	2020ko otsailak 18
2019ko urriak 15	2020ko martxoak 03
2019ko azaroak 05	2020ko martxoak 17
2019ko azaroak 12	2020ko martxoak 24
2019ko azaroak 26	2020ko martxoak 31
2019ko abenduak 10	2020ko apirilak 21
2020ko urtarrilak 14	2020ko maiatzak 05
2020ko urtarrilak 21	
2020ko otsailak 04	

Non

Euskal Herriko Foro Psikoanalitikoaren Egoitzan
Okendo Kalea 5, 2. C.

Noiz

Asteartetan 20:00etaik a 21:30etara

Koordinatzaileak

Mikel Plazaola, Teresa Velasco, María Jesús Zabalo

3. modulua

TESTUEN MINTEGIA (6. MINTEGIA) ETA KASU KLINIKOEN AZALPENA

6. mintegiaren lau hilabete aurretik, Lacanek 1958ko uztailaren *Sendabidearen zuzendaritza eta bere boterearen hastapenak* idatzia igorri zuen, non ametsi buruzko interpretazioa eta oinarrizko fantasmarekin amaitzen zuen testua.

Idatzi honetan hala dio: “Norantz doa ba sendabidearen zuzendaritza? Bere baliabideak galdetzea nahikoa da agian, bere irmotasunean definitu ahal izateko”.

Behatu dezagun:

1. Hitzak dituela beregan botere guztiak, sendabidearen botere bereziak
2. Oinarrizko araua dela eta, subjektua hitz betearuntz zuzentzetik urruti gaudela
3. Askatasun hori zaiola zailena onartzen
4. Eskaria dela hain zuzen ere, analisisian parentesi artean jartzen dena, baztertua baitago analistak, bat bera ere asetzea
5. Desioaren aitortzari inolako eragozpenik jartzen ez zaiolako, harantz da zuzendua subjektua, baita bideratua.
6. Aitortza horri erresistentzia, azken azterketan, ez datza ezertan, hitza eta desioaren arteko bateraezintasunean ez bada.

“Proposamen hauek nire diskurtsoan aurkitzeak, zenbaitzuk, nire ohiko entzule ohikoa barne, harrituko ditu”.

Gure ustetan, *kasu klinikoan aurkezpen* kasu klinikoak eguneroko lanbide klinikoan topatu ohi diren bezala lantzeko modu bat da, alegia, ordenamendu klinikoarekiko interesa sendakuntzaren gidaritza-ereduekin bateratzen den gunea.

Bai mintegi teorikoa irakasteko, nahiz Euskal Herriko kideek aurkeztutako kasu klinikoak lantzeko Bartzelona, Donostia, Madril, Paris, Tarragona, Asturias eta Pabeko, psikoanalisten partaidetza dugu.

Psikoanaliaren irakaskuntzan eta besterentzat adituak diren psikoanalistak.

Egutegia

2019ko urriak 19

Bernard Nomine. Psikanalista Paben
Sarrera orokorra eta I. kapitulua
Kasu aurkezle: Garazi Muguruza
Koordinatzaile: Juan del Pozo

2019ko azaroak 16

Nieves González. Psikoanalista Madrilen
II. kapitulua
Kasu aurkezle: Arkaitz Irazabal
Koordinatzaile: Teresa Velasco

2019ko abenduak 14

Juan del Pozo. Psikoanalista Donostian
III. kapitulua
Kasu aurkezle: Eli Irureta
Koordinatzaile: Tereko Zaballa

2020ko urtarrilak 25

Ramón Miralpeix. Psikoanalista Bartzelonan
IV. eta V. kapituluak
Kasu aurkezle: Xabier Moñux
Koordinatzaile: Bittori Bravo

2020ko otsailak 22

Xabier Oñativia. Psikoanalista Donostian
VI. eta VII. kapituluak
Kasu aurkezle: María Jesús Zabalo
Koordinatzaile: Josune Aréjula

2020ko martxoak 28

Manel Rebollo. Psikoanalista Tarragonan
VIII. eta IX. kapituluak
Kasu aurkezle: Vanessa Rodriguez
Koordinatzaile: Arkaitz Irazabal

2020ko apirilak 25

María Jesús Diaz. Psikoanalista Asturiasen
X. eta XI. kapituluak
Kasu aurkezle: Rosa Belzunegi
Koordinatzaile: M^a Jesús Zabalo

2020ko maiatzak 09

Luis Izcovich. Psikoanalista Parisen
XII., kapitulua eta itxiera.
Kasu aurkezle: Pablo Gallastegi
Koordinatzaile: Mikel Plazaola

Non

San Sebastian Hotela. Eguzki aretoa
Zumalakarregi ibilbidea 20 Donostia

Ordutegia

10:00etatik 14:00tara

Psikoanalistek eginiko aurkezpen klinikoen praktika nagusiki Lacanengandik jaso dugu. Ospitale Psikiatrikoetako aurkezpen klinikoak aspaldikoak dira, baina Lacanen iritziz, bera psikoanalista izanik, garbi da aurkezpen hauek gehien bat psikoanalistei zuzenduak behar dutela izan. Ez ordea psikiatrei hala diren neurrian, psikoanalistei baizik.

Nire ustez horren arrazoia, eta zentzuzkoa iruditzen zait, honako hau da: psikoanalistek subjektu guztiengandik ikasi behar izatea. Ez soilik neuroti-koengandik, hauek baitira maizen kontsultara jotzen dutenak; baita psiko-tikoengandik, nahiz eta hauek kontsulta pribatuetara gutxiagotan iritsi. Psikoanalista egitura kliniko guztietatik ikasi beharrean dago, kokapen sub-jektibo guztietatik eta psikotikoez jasaten dituzten fenomeno guztietatik, azken finean subjektu psikotiko batez esan dezakegun gauzarik xumeena, beste edozein subjektu bezalakoa dela hasteko, subjektu hitzun den neu-rrian, baina sarritan fenomeno nahiko bereziak pairatzen dituen subjektu bat dela, hauek asko ikasi dezakegularik.

Publiko zabal baten aurrean aurkeztutako gaixo batekin “elkarrizketa” mantentzea arazotsua suerta daiteke agian. Lacanek izendatzen zuen gaixoan kokapen subjektiboak errespetatzen duen elkarrizketaz ari gara eta elkarriz-keta horren garrantzia azpimarratu nahi dut, zeren eta elkarrizketa ez bada, zer da?. Behaketa besterik ez da, zoologian bezala, beste gisan hartu norbait eta behatu. Eztabaida eta elkarrizketarako egokienetakoa ez den testuinguru batetan elkarrizketa mantentzea erien aurkezpenaren zailtasunetariko bat dela uste dut.

Eta, agian, zenbaitetan elkarrizketa mantentzea baliagarria izan daiteke gai-xoarentzat edo eta baliagarria izan daiteke era berean gaixo hau zaintzen duten pertsonentzat, harekin lan egiten dutenentzat. Hau guztia noski, kasu bakoitzaren arabera.

Colette Soler

Zamudio, 18-06-99

Erien aurkezpenen egutegia

2019ko urriak 18

Bernard Nomine

2019ko azaroak 15

Nieves González

2019ko abenduak 13

Juan del Pozo

2020ko urtarrilak 24

Ramón Miralpeix

2020ko otsailak 21

Xabier Oñativia

2020ko martxoak 27

Manel Rebollo

2020ko apirilak 24

Ez da erien aurkezpenik egingo. Ordez, bere analisiari buruzko lan bat aurkeztuko du María Jesús Diaz-ek Foroko egoitzan.(Okendo 5,2.)

2020ko maiatzak 08

Luis Izcovich

Koordinatzailea

Tereko Zaballa

Lekua

Donostiako San Juan de Dios Ospitalean

Ordutegia

Ostiraletan 18:00etatik 20:00tara

KLINIKA PSIKOANALITIKORAKO SARRERA-IKASTAROA

Egungo munduaren historian, digital aroaren, ahozko eta idatzizko hitzen aurrezte eta abiada azkarreko lengoai binarioaren garai honetan, psikoanalisi eta freudiar jarduera, etika jarduera bat da. Etika honek, gure inkontzienteari eta bertan bideratzen den desioari adi egotera garamatza, azken finean desio duguna nahi ote dugun, erabaki ahal izateko.

Ametsei buruzko interpretazioarekiko interesa Freudi bere jardueratik sortu zitzaion. Pazienteez adierazten zizkioten ametsetako eszenak inkontzientearen suposatuturik gabe ulergaitzak ziren. Hau da, zenbaitetan gizabanakoaren idealekiko onartezinak diren desioak, “beste eszenan” dute lekua.

Desio onartezin hauek erreprimitzen joaten ziren, eta desitxuraturik, erreprimituaren berrizuleran, berrazalaratzen ziren; hor ditugu inkontzientearen eraketak: lapsusak, hutseginak, ahazteak, sintoma eta noski, Freudek bizitza animikoan inkontzientearen ezagutzan errege-bide izendatu zuena, ametsa eta bere baitako desioen betetzea.

Lacanez 1958-59 psikoanalista garaikideei 6. mintegian erantzun hau ematea erabaki zuen, pixkanaka ahazten doazen oinarritzko auzi hauek, desioa eta ametsen interpretazioa lantzea.

Lakaniar kontzeptuekin batera, irakaskuntza hauek berreskuratzen ahalegin-duko gara.

Ametzen interpretazioa, lehen eta bigarren atalak.

Freud, S. (1900) La interpretación de los sueños. *Sigmund Freud. Obras completas*, Buenos Aires, Amorrortu Vol IV-V.

Edo Freud, S. (1900). La interpretación de los sueños. (Vol. II, pp. 343-754). Madrid: Biblioteca Nueva [1972].

Jarduera honen irakaskuntza, ikastaroan inskribatutako bolondresen zenbait lan eta ekarpenaz eta Jakin-minako zenbait dozenteen partaidetzaz osatuko da.

2019-2020ko egutegia

2019ko urriak 16
2019ko azaroak 06
2019ko azaroak 20
2019ko abenduak 11
2020ko urtarrilak 08
2020ko urtarrilak 22
2020ko otsailak 05
2020ko otsailak 19
2020ko martxoak 11
2020ko martxoak 25
2020ko apirilak 22
2020ko maiatzak 06

Non

Euskal Herriko Foro
Psikoanalitikoaren Egoitzan
Okendo Kalea 5, 2. C.

Ordutegia

Asteazkenetan 20:00etatik
21:30etara

Koordinatzaileak

María Jesús Zabalo, Mikel Plazaola
eta Josune Aréjula

Aurkezle

Juan del Pozo, Bittori Bravo, Mikel
Plazaola, Teresa Velasco, M^a Jesús
Zabalo, Arkaitz Irazabal, Aitor
Gisasola, Xabier Moñuxek egingo
dituzte lehenak eta behin ikastaroa
hasita eskaintzen diren partaideak.

6. modulua

LACANIAR ALORREKO LOTURAK

Lacanen garaikideekin jarraituko dugu.

Aurten ere Maurice Blanchot aztertzeari ekingo diogu, batik bat, bere lanak Robert Musilen *Berezitasun-gabeko gizonari* buruz, André Gorzen *Traidorea* eta *Saderen arrazoia*.

Segidan Roland Barthesen lanaren azterketarekin jarraituko dugu. Bera ere Lacanen garaikidea, eragin handia izan zuen batez ere linguistikaren arloan.

Saussure, Benveniste, Jakobson eta Levi-Straussen eraginez lotura handia izan zuen estrukturalismoarekin. Lacanen lana ere gertutik ezagutzen zuen.

Barthesek eragina handia izan zuen bai semiotika arloan non kritika literarioan.

Bere lan garrantzitsuenetakoak izan ziren: *Zeinuen inperioa* (L'empire des signes) *Idazkeraren gradu zeroa* (Le degré zéro de l'écriture) eta *Semiologiaren elementuak* (Elements de sémiologie)

Egutegia

2019ko urriak 22
2019ko azaroak 19
2019ko abenduak 17
2020ko urtarrilak 28
2020ko otsailak 11
2020ko martxoak 10
2020ko apirila 28
20120ko maiatzak 12

Non:

Euskal Herriko Foro Psikoanalitikoaren egoitzan. Okendo kalea 5, 2. C. Donostia

Ordutegia:

Asteartetan 20:00etatik 21:30etara

Koordinatzaileak:

Ángel Murias eta Xabier Oñativia

Lakanar Alorreko Formazio Klinikoen Jardunaldi bateratua

XX. Jardunaldi bateratua Valentzian burutuko da 2020ko maiatzaren 30ean. Gaia **“Mintzatzen omen da... eta XXI.mendeko zenbait adierazle berri”** da. Bertan, ondorengo Kolegio Klinikoeak hartuko dute parte: ACCEP Associació Catalana per a la Clínica i l'Ensenyament de la Psicoanàlisi, Galiziako Elkarte Psikoanalitikoa Santiago/Vigo, Foroa, Associació de Clínica Psicoanalítica de Tarragona (ACPT), Madrilgo Kolegio Psikoanalitikoa, Col-legi de Clínica Psicoanalítica de Valencia, Lakanar Alorreko Formazio Klinikokoak/As-turiasko Foro Psikoanalitikoa, Jakin-mina Lakanar Alorreko Formazio Klini-kokoak Euskal Herrian, Seminari de Psicoanàlisi de Tarragona.

Jardunaldirako inskribapenak salneurri murrizketa izango du Formazio Klini-koko ikasle eta irakasleentzat.

Friend

Flacay